

LASTER / PRÓXIMAMENTE

HOTSETAN. MUSIKA ESPERIMENTALEKO ETA SOINU-ARTEKO PROGRAMA / PROGRAMA DE MÚSICA EXPERIMENTAL Y ARTE SONORO

ERAOKUSKETA - SOINU INTERBENTZIOA / EXPOSICIÓN - INTERVENCIÓN SONORA

Sandra Cuesta


Lo adherente y el fuego

Sandra Cuesta artistak Azkuna Zentroan aurkeztuko duen *Lo adherente y el fuego* interbentzioan, Lantegia 2ko soinutik eta aretoak dituen erresonantzia-aukeretatik abiatuta, espazioan biziko da, soinuen eduki-ontzi gisa, dauden iturri ugariak amplifikatzeko.

«Kantuen zerrenda bat da, eta beste gauza baten aukera izateko bide ematen duten objektuetatik abiatuz eginda dago. Haren forma ez da osatuko, ezin izango dugu deszifratu, baina kanta bakotzak zerbaitez ohartaraziko du. Honelako kantuak: *era la noche (gaua zen)*, *metálica información (metalezko informazioa)*, *mensajes al cuello (mezuak lepoan)*, *adiós (agur)*, nola-halako sentsazioa sorraz dezakete, hari-mutur guztiak lotzekoa, hor zegoen soinuari eusten dioten bolumen leunen eta soinu-amplifikadoreen bidez». Sandra Cuesta

La artista Sandra Cuesta presenta en Azkuna Zentroa *Lo adherente y el fuego* una intervención en la que, partiendo del sonido de Lantegia 2 y sus posibilidades de resonancia, habita el espacio como contenedor de sonido para amplificar las diversas fuentes existentes.

«Es una lista de canciones compuesta a partir de objetos que abren la posibilidad de otra cosa. Su forma no se completa, no la podremos descifrar, pero cada canción advierte algo. Canciones como: *era la noche*, *metálica información*, *mensajes al cuello*, *adiós*, pueden producir la sensación de ir adheriendo fuentes de sonido y volúmenes blandos que sujetan un aire que ya estaba ahí». Sandra Cuesta



2 > 22 MARTXOA

Astelehena > Igandea
Lunes > Domingo

16:30 - 20:30 Lantegia 2
Sarrera dohainik / Entrada libre

HOTSETAN. MUSIKA ESPERIMENTALEKO ETA SOINU-ARTEKO PROGRAMA /
PROGRAMA DE MÚSICA EXPERIMENTAL Y ARTE SONORO

Natasha Barrett & Mikel Iturregi



Natasha Barrett. Arg./ Foto.: Jan Erik Breimo

2020 5 OTSAILA
FEBRERO
Asteazkena / Miércoles

19:30 Lantegia 1

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Musika akusmatikoa eta soinu elektroakustikoa konposatzen dituen [Natasha Barrett](#) artista britainiarren lana aurketzen dugu, [Mikel Iturregi](#) bertako artistarekin lagunduta.



NATASHA BARRETT

[Natasha Barrett](#)-ek (UK, 1972) musika akusmatikoa eta elektroakustikoa lantzen ditu, bakarka, ensembleetan eta soinu-instalazioetarako. Normalean, beste musikari, artista bisual, arkitekto eta zientzialari batzuekin aritzen da lankidetzan. Azken 20 urteetan aditu bilakatu da Ambisonics-en eta forma espazio-musikalak sortzen.

Artista britainiar hau Oslo bizi da, eta sari ugari jaso ditu, besteak beste: Nordic Council Music Prize (Eskandinavia, 2006), Giga-Hertz Award (Alemania, 2008), Edvard Prize (2004, Norvegia), Noroit-Leonce Petitot (Arras, Frantzia, 2002 & 1998).

MIKEL ITURREGI

Barrettetkin batera jardungo duen [Mikel Iturregi](#) (Sopela, 1997) pianoan konpositoreak, hiru obra aurkeztuko ditu otsailaren 5ean, eta horietako bi erabateko estreinaldiak izango dira: *Aunque tenga los huesos cubiertos de pequeñísimas orquídeas*, pianorako bakarrik; *Tres jardines ciegos*, akusmatikoa; eta azkenik, akordeoi eta elektronikarako pieza berri bat, kontzerturako espresuki idatzia.

Gainera, Gabriel Erkorekaren pianorako *Nubes* obrak, Uros Rojkoren akordeoi eta pianorako *Bagatellen* obrak eta Maurice Ravelen *Ronsard à son âme* abestiaren moldaketa bat ere interpretatuko dituzte. Antzezleak [Garazi Navas](#) akordeoia eta Mikel Iturregi pianoa eta elektronika izango dira.

Euskal musikaria Leioako Udal Kontserbatorioan eta Musikenean jaso du prestakuntza, eta konposizio espezialitateko goi-maila egin du (2015-2019), Gabriel Erkoreka, Ramon Lazcano, Zuriñe Fernández Gerenabarrena eta Stefano Scarani irakasleekin. Iturregi lankidetzen aritu da Musikene Orkestrarekin (2016), Helmut Lachenmann-en Schreiben interpretatzen, Arturo Tamayoren zuzendaritzapean. Gainera, Bilboko Udal Bandak, Musikene Sinfoniettak, Kuraia Ensembleak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak, besteak beste, haren obrak interpretatu dituzte.

Presentamos el trabajo de la artista británica [Natasha Barrett](#), compositora de música acusmática y sonido electroacústico, junto con el artista del contexto local [Mikel Iturregi](#).



NATASHA BARRETT

[Natasha Barrett](#) (UK, 1972) trabaja la música acusmática y electroacústica tanto en solitario como en ensembles, así como para instalaciones sonoras. Colabora habitualmente con otros músicos, artistas visuales, arquitectos y científicos. En los últimos 20 años se ha convertido en una especialista en Ambisonics y en la creación de formas espacio-musicales.

Esta artista británica, residente en Oslo, ha recibido numerosos premios como Nordic Council Music Prize (Escandinavia, 2006), Giga-Hertz Award (Alemania, 2008), Edvard Prize (2004, Noruega), Noroit-Leonce Petitot (Arras, Francia, 2002 & 1998), entre otros.

MIKEL ITURREGI

En diálogo con [Barrett](#), [Mikel Iturregi](#) (Sopela, 1997), compositor con especialidad de piano, presentará el 5 de febrero, tres obras, dos de las cuales serán estrenos absolutos: *Aunque tenga los huesos cubiertos de pequeñísimas orquídeas*, para piano solo; *Tres jardines ciegos*, acusmática; y por último una nueva pieza para acordeón y electrónica escrita expresamente para el concierto.

Además también se interpretarán las obras *Nubes*, para piano solo de Gabriel Erkoreka; las *Bagatellen* para acordeón y piano de Uros Rojko y un arreglo de la canción *Ronsard à son âme* de Maurice Ravel. Los intérpretes serán [Garazi Navas](#) al acordeón y [Mikel Iturregi](#) al piano y a cargo de la electrónica.

El músico vasco se ha formado en el conservatorio Municipal de Leioa y después en Musikene, cursando el Grado Superior en la especialidad de composición (2015-2019) con los profesores Gabriel Erkoreka, Ramon Lazcano, Zuriñe Fernández Gerenabarrena y Stefano Scarani. Iturregi ha colaborado con la Orquesta de Musikene (2016) en la interpretación de Schreiben de Helmut Lachenmann, bajo la dirección de Arturo Tamayo. Además, sus obras han sido interpretadas por la Banda Municipal de Bilbao, la Musikene Sinfonietta, el Ensemble Kuraia y la Orquesta Sinfónica de Bilbao, entre otros.